

EUSKAL HERRIKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA SUSTATZEKO PLANA 2020-2023

Laguntzaileak:



AURKIBIDEA:

EUSKADIKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA SUSTATZEKO PLANAREN (FOPE 2020-23) AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.....	3
1. EAeko Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Planaren (FOPE) aurrekariak	3
1.1. Ekoizpen ekologikoaren eta agroekologiaren sustapena Euskadin	4
2. Ekoizpen Ekologikoaren gainean indarrean dagoen legeria eta araudia	6
3. EAEn ohiko nekazaritzatik ekologikora igarotzeko baldintzatzaile ekonomikoak eta teknikoak.....	8
MERKATU EKOLOGIKOAREN ANALISIA	9
4. Ekoizpen ekologikoaren joera globalak.....	9
5. Ekoizpen Ekologikoaren egoera Espainian	10
5.1. Espainia munduan	10
5.1. Espainia Europan	11
5.1. Merkatu ekologikoa Espainian	13
6. Ekoizpen Ekologikoaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE).....	16
6.1. EAEn egoera Espainian.....	16
6.1. Ekoizpen eta merkatu ekologikoaren bilakaera Euskadin.....	17
7. Kontsumitzaileak:	20
7.1. Kontsumo joerak	20
7.2. Kontsumitzaile ekologikoaren ezaugarriak.	20
INGURUNEAREN ANALISIA ETA FOPE 2020-2023 PLANAREN HELBURUAK	22
7.3. Euskadiko ekoizpen ekologikoaren AMIA ANALISIA	22
7.4. Helburu nagusiak.....	26
EKINTZA PLANA	27
8. Jardute ardatzak eta lerroak	27
8.1. 1 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Informazioa, posizionamendua eta sustapena	28
8.2. 2 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Kontsumoa eta merkaturatzea	29
8.3. 3 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Zientzia eta berrikuntza Nekazaritza Ekologikoan	31
8.4. 4 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Komunikazio eta koordinazio instituzionala	32
JARRAIPENA ETA AURREKONTU ESPARRUA.....	34

EUSKADIKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA SUSTATZEKO PLANAREN (FOPE 2020-23) AURREKARIAK ETA BALDINTZATZAILEAK.

1. EAEko Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Planaren (FOPE) aurrekariak

Dokumentu honek jasotzen ditu Euskadin Nekazaritza Ekologikoa Sustatzeko Eusko Jaurlaritzak landutako Planaren funtsezko ekintzak eta bitartekoak, jakinda plan horrekin jarraipena eta indarra eman nahi zaiola 2014an Eusko Jaurlaritzaren apustu estrategiko gisa abiarazi zen FOPEri.

Bai FOPE hau, bai aurrekoa, Espainiako eta Europako politiken ildotik doaz. Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Batzorde ekonomiko eta sozialari eta eskualdeen batzordeari helarazitako komunikazio dokumentuan azaltzen denaren arabera, *“ekoizpen ekologikoa da nekazaritza eta elikagaien ekoizpena kudeatzeko sistema global bat, eta bere ezaugarri bereizgarria da alderdi hauek konbinatzen dituela: Ingurumeneko jardunbiderik hoberenak erabiltzen ditu, biodibertsitate maila handia bermatzen du, baliabide naturalak babesten ditu, animalien ongizate maila handiak aplikatzen ditu eta gai eta prozesu naturalak erabiltzen dituzten produktuekiko kontsumitzaile batzuek agetzen duten lehenespenearekin bat datozen ekoizpen metodoak erabiltzen ditu. Ekoizpen ekologikoaren erronka orokorra da eskaintzaren eta eskariaren hazkunde erregularra bermatzea, aldi berean kontsumitzaileen konfiantza mantenduta.*

Horregatik, ekoizpen ekologikoa sustatzeko ekintzek irismen handiagoa eduki behar dute, eta ekoizleengana ez ezik elikagaien banaketaren eta eraldaketaren sektoreetara iritsi behar dira; eta denek Europako araudiek baldintzatutako jarraipen eta kontrol sistema baten mende lan eginda, horrela kontsumitzaileen konfiantza edukitzen jarraitzeko eta dagoen sinisgarritasuna bultzatzeko. Era berean, modu agerian lagundu beharko die landaguneei beren garapenean eta ekonomikoki iraunkor izaten, aldi beren ingurumenean hobekuntzak eginda eta pertsonen eta animalien osasunerako eta ongizaterako onurak eraginda.

Azken urteetan, Europako eta Espainiako hainbat ekimen areagotu dira helburu sozialei eta ingurumenekoei aurre egiteko asmoarekin; kontuan hartuta ekoizpen ekologikoak eta berarekin batera doan zientziak –zientzia agroekologiko– sistema naturalen alderdi ekologikoaren eta sozialaren areagotzea dutela oinarri eta, zalantzarik gabe, 2013ko azaroan Europako Parlamentuak eta Europar Batasunaren Kontseiluak 2020ra arteko aldirako onartu zuen Ingurumenaren alorreko VII. Ekintza Programak (PMA) dituen helburuak lortzen laguntzen dutela. Europan etorkizunean egingo diren ekintzak gidatu behar dituen estrategia komun bat da PMA.

Sektoreko eragile eta erakunde eskumendun guztien arteko lankidetzaren emaitza da FOPE plana, eta izaera transbertsala dauka exekutibo autonomoaren barruan, izan ere, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren gidaritzapean egonda, hezkuntzan, kontsumoan eta ingurumenean eskumena duten beste sail batzuen plan estrategikoetan inplikatzeko eta lerratzen da, eta PEGARI (Gastronomiaren eta Elikaduraren Plan Estrategikoa) arreta berezia egiten dio, bere jardute ildoen parte gisa sartuta.

2020-2023 aldirako FOPE hainbat lan saiotan definitu da, NEIKER, ENEEK, AZTI, HAZI eta BCCko teknikariek eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoko Kontseiluaren (ENEK) Kontseilu Errektorearekin elkarlanean.

1.1. Ekoizpen ekologikoaren eta agroekologiaren sustapena Euskadin

Gure Erkidegoari dagokionez, ekoizpen ekologikoak garapen murrizta eduki zuen Europako beste eskualde batzuekin alderatuta, bai eta Espainiako beste Autonomia Erkidego batzuekin alderatuta ere, harik eta 2014an, Euskal Herriak hazkunde ekonomiko iraunkorrerako zuen aukera aprobetxatzeko, Eusko Jaurlaritzak FOPE proiektua edo Euskadin Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana abian jarri arte, izan ere, ekoizpen ekologikoaz eta produktu ekologikoen kontsumoaz gero eta interes handiagoa zegoen gizartean.

Plan hau aurreko FOPE planaren jarraipena da, zeina 2014az geroztik gauzatu baitzen. Horrenbestez, berriro indarra hartu eta Euskadin hazkunde iraunkor handiagorantz jotzeko aukera da, jatorri ekologikoko produktuen ekoizpenaren eta kontsumoaren sustapenean oinarrituta. Hori horrela, kontuan hartu behar ditugu helburu horrekin 2014an finkatu ziren helburuak, eta aurreko planaren egoera oraingo baldintzetara egokitu.

Hauek izan ziren 2014an FOPEn finkatu ziren helburuak eta adierazleak:

1. Operadore kopurua 600era arte handitzea eta eraldatzaileen kopurua 200era arte (orduan 389 operadore eta 125 eraldatzaile zeuden)
2. Kontsumo kuota bikoiztea (orduan %1 zen)
3. Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikorako erabiltzen den Nekazaritza Azalera Erabilgarria (NAE) bikoiztea (%1,1etik %2,2ra).
4. EAEko ekoizpen ekologikoaren gaineko ikerketa eta prestakuntzarako lerroak irekitzea eta sendotzea.

2014ko FOPEa gauzatu ondoren, aurrez finkatutako adierazleak egoera honetan aurkitzen dira gaur egun:

Helburua	Abiapuntuko egoera (2014)	FOPE helburua	2019ko azaroko egoera
NEko eskaera bukatuen portzentajea handitu: eskaeren kontsolidazioa	%35	%80	%95
Operadore kopuruaren hazkundera	389	600	633
Eraldatzaile kopuruaren hazkundera	125	200	177
Kontsumoaren hazkundera	%1		Zaintzen
Familia kontsumitzaileen hazkundera	3000		Zaintzen
NEko NAEren hazkundera	%1,10 (2874 ha)	2,20%	%2,75 (5.477 ha)
NEko I+G+Bren egokitzapena	0	3 ikerketa lerro	5 ikerketa lerro

Euskadiko hiru Lurralde Historikoetan une hartan gauzatu ziren Ekoizpen Ekologikoko planetan eta Espainiako eta Europako beste batzuetan oinarrituta eta haiekin bat etorrita abiarazi zen FOPEa. Plan horien artean hauek ditugu nabarmenenak:

- EAEko Nekazaritza Ekologikoaren Garapen Plana 2009-2012 aldirako
- Araban Ekoizpen Ekologikoa sustatzeko jardueren proposamena (AFA, 2013ko abendua)
- MAGRAMAk 2014ko martxoan abiarazi zuen Ekoizpen Ekologikoa babesteko plana, eta hurrengo urtekoak.
- Ekoizpen ekologikoaren etorkizunerako Europar Batasunaren ekintza plana, 2014ko martxoan
- ENEEken Komunikazioko Plan Estrategikoa, 2019-2022 aldirako
- Nekazaritzako ekoizpen ekologikoa 2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapeneko Programan (ENEK, 2019ko martxoan)

EAEko Ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Planaren edizio berri honetan berriro hartuko dira kontuan esandako planak, gaur egun berrituta eta indarrean daudenak, bai eta ekoizpen ekologiarri lotuta azken urte hauetan egin diren plan eta proiektu berriak ere, arreta berezia eginda 2014an abiarazitako FOPEaren emaitzei eta planaren helburuak **lortzeko egon diren zailtasunei eta gaur egun martxan dauden beste erakunde batzuen planei:**

- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa, 2020ko GEPE
- Bioekonomiako Plana
- Animalien demedikalizaziorako plana

FOPW berriak 2014an jada definitu ziren premisa berberak ditu abiapuntu:

- Nekazaritza ekologikoa bere kate osoan sustatzeko plan bat izan behar da: Ekoizpenean, eraldaketan eta merkaturatzean.
- LGPren neurriak FOPEn jarduketekin bat etorri behar dira.
- Tokiko produktuaren garapena eta merkaturatzea bultzatu behar du, eta ezin dio ezetz esan produktu horiek kanpoko merkaturatzearen posizionatzeari, ez eta beharrezkoak diren intsumoak edo lehengaiak sartzeari ere (ez dakigu zergatik, baina momentuz EAEn ez da halakorik gertatzen).
- Nekazaritza Ekologikoko produktuak eta EAEN jada garatzen diren kalitateko beste marka batzuk batera egon behar dira, eta elkarren osagarriak izan.
- Sektoreak eta sektorerako gidatutako plan bat izan behar da, eta sektorea errespetatuta sentitu behar da eta entzun egiten zaiola eta beren espektatibei erantzuten zaiela sentitu behar du.
- FOPEk Nekazaritza Ekologikoaren hazkundean lagundu behar du, bere kate osoan enplegua sortarazten duen zerbait den heinean.

2. Ekoizpen Ekologikoaren gainean indarrean dagoen legeria eta araudia

Euskadin, 2007az geroztik dago legez araututa Nekazaritza ekologikoa. Izan ere, urte horretan Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Legea onartu zen (10/2006 Legea, abenduaren 29koa) eta Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua eratu zen (ENEK), ekoizpen ekologikoaren egiaztapenerako eta kontrolerako erabateko eskumenekin.

2009ko urtarrilaren 1etik, produktu ekologikoen ekoizpena eta etiketatzeari buruz Kontseiluak emandako (EB osorako araudi komuna) 834/2007 Erregelamenduak (EE) eta erregelamendu hori aplikatzeko ekoizpen ekologikoari eta bere etiketatzeari eta kontrolari buruzko xedapenak ezartzeko Batzordeak emandako 889/2008 Erregelamenduak arautzen dute ekoizpen ekologikoa. Jada argitaratu da 834/2007 Erregelamendua indargabetzen duen 2018/848 Erregelamendu berria, eta erregelamendu berri hori 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Erregelamendu horiek ez dira estatikoak, aldian-aldian aldatu egiten dira, eguneratzeko eta onartzen diren intsumo, jardunbide edo ekoizpen berriak sartzeko edota ekoizpen ekologikotzat jotzen denarekin bat ez datozela intsumoak edo jardunbideak Erregelamendutik kentzeko.

Erregelamendu horiek ezartzen dute nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoko produktuak ekoitz, landu, biltegiatu, merkaturatu eta inportatzen dutenek kontrol araubide baten mende egon behar dutela baldin eta nahi badute produktu horiek Europako Erkidegoko ekoizpen ekologikoaren arauak errespetatzen dutela eta bertan onartzen diren produktuak bano erabiltzen ez dutela bermatzen duen ziurtagiri europarrarekin merkaturatu.

Produktu ekologikoen identifikazioa

Elikagaiak ekoizpen ekologikoko metodoen aipamena eraman ahal izango dute soilik baldin eta ekosistemak errespetatu, lurzoruaren, uraren, landareen eta animalien osasuna hobetu, biodibertsitate maila handia lortzen lagundu, energia eta baliabide naturalak era arduratsuan erabili, animalien ongizaterako arau zorrotzak bete eta kalitate handiko askotariko elikagaiak lortzen dituzten jardunbideen bidez lortutako elikagaiak badira. Elikagai ekologiko bat identifikatzeko, gogoratu behar da Ekologiko, Eko, Biologiko, Bio eta Organiko terminoak soilik ekoizpen sistema hau aplikatuz lortzen diren elikagaietarako direla.

Nekazaritza ekologikoaren aipamena erabiltzeko, ekoizpen prozesuek kontrol zorrotzak pasatu behar dituzte. Baimendutako erakunde ziurtagiri emaile batek (Euskadin, Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoko Euskal Kontseilua-ENEK) egingo dizkio kontrol horiek, eta operadoreak (ekoizlea, elaboratzailea edo merkaturatzailea) elikagaiak ekoizteko edota lantzeko eskatzen diren betekizun guztiak eta ikuskapen, ziurtapen eta etiketatze betekizun guztiak ere bete dituela baieztatzeko balio du. Euskadin ziurtatutako elikagai ekologikoek ES-ECO-026-VAS kodea eta ENEKEn zigilua daramatzate, eta horiek erabiltzeko beharrezkoa da ENEKEn operadore gisa inskribatuta egotea. 2010az geroztik, EBren logotipo ekologikoa –**Euroorria**– derrigorrezkoa da EBn ekoiztutako edota landutako elikagai ekologiko guztietarako. Logotipoak egoki erabilia posible da elikagai ekologikoen irudia zentzuz zabaltzea eta ezartzea.

Etorkizunerako perspektibak. Aurretik esanenez, 2012an hasitako prozesu baten ondoren, Europako Kontseiluak onartu du jada EBn ekoizpen ekologikoa eta produktu ekologikoen etiketatzea arautuko duen araudi berria, zeina 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko baita indarrean. Sektore ekologikoa gero eta merkatu kuota handiagoa dauka, eta ekoizleek, operadoreek eta merkaturatzaileek bi urte eskas dituzte lege esparru berrira egokitzeko, kontsumitzailearen interesak babesteko ere diseinatu baita. Europak, ekoizpen sistemak ziurgabetasun globaletara egokitu daitezzen eta haien tokiko egokitzapen agroklamatikoa, soziala eta ingurumenekoa lortzeko funtsezko ardatz nagusi gisa, nekazaritza ekologikoko I+G+Ba babestearen alde egin duen une berean kaleratu da araudi berria.

Horrez gain, ENEKek komunikazio plan bat landu du 2019-2022 aldirako, non hurbileko produktu ekologikoak garrantzia hartzen baitu. Kontseilua kontzeptu hori aztertzen ari da epe laburrera Euskal Autonomia Erkidegoan inskribatutako operadoreek merkaturatu eta bere arau tekniko propioen mende (10/2006 Legearen 6.1.c artikulua) kontrolatuta dauden hurbileko produktu ekologikoen etiketatzen sartu nahi duelako.

3. EAEn ohiko nekazaritzatik ekologikora igarotzeko baldintzatzaile ekonomikoak eta teknikoak.

2016an Talde Operatibo bat eratu zen (GFOPE), nekazaritza eta abeltzaintzako bost kudeaketa zentrotan (AGA, LORRA, ABELUR, LUGINTZA eta ABERE) eta laguntzako bi erakunderekin (ENEK eta NEIKER), plan pilotu bat gauzatzeko, eta taldeak, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategiak monitorizatzuz eta bertan laguntza emanez, ohiko nekazaritzatik (ON) nekazaritza ekologikora (NE) igarotzeko dokumentu bat idatzi ahal izan zuen (Eskuliburu Operatiboa). Informazio hori lantzeko, elkarrizketa pertsonalizatuak egin ziren agian ekoizpen ekologikoko sisteman sartzea ondo baloratzen zuten ekoizleekin. Orientazio desberdineko ekoizleak elkarrizketatu ziren: estentsiboak (zerealak, lekadunak, bazka), baratzezainak, frutazainak, mahastizainak eta abeltzainak. Ekoizle bakoitzak bere etxaldean sartzen utzi zuen eta ekoizpen ekologikora igarotzeko behar ziren aldaketen gainean zituen zailtasunak eta zalantzak planteatu zituen, indarreko araudia zehaztasunez ezagututa.

Ekoizle guztiek azaldutako gai orokor gisa, hau planteatu zen:

- Kasu gehienetan, ekoizpe profesionalek beraiek erabakitzen dute etxaldeko produkzioa ekologikora eraldatzea, produktu ekologikoen eraldatzaileekin edo banatzaileekin inolako akordiorik egon gabe.
- Ustategia ekoizpen ekologikora aldatzeak hainbat zailtasun dakartza ekoizpen orientazio guztietan. Hori gorabehera, gero eta gehiago dira ekologikoan sartzen direnak, bereziki baratzezainen artean. Labore estentsiboen ekoizleen eta abeltzainen kasuan, berriz, zailagozat jotzen da aldaketa, eta aholkularitza teknikoak adierazten dute puntu kritiko gisa, zeina ezinbestekoa baita zalantzei eta zailtasunei irtenbidea emateko.
- Komertzializazioarekin lotura duten alderdiek kezka eragiten dute labore estentsiboen eta abeltzaintzaren ekoizpenen eremuetan, ez soilik uztaren salmentarako antolamendurik ez dagoelako, Ekoizpen Ekologikoaren kontsumoa sendotzeko kontsumo eta banaketa premietara egokitu behar delako ere bai.
- Ekoizleek eta operadore eraldatzaileek planteatutako ziurgabetasun teknikoari erantzuna emateko, beharrezkoa da tokiko egoerarako erantzunak emango dieten lanketa eta Garapen lerroak garatzea eta ekoizpenaren iraunkortasun ekonomikorako balioa emango duten irtenbide berritzaileak sartzea.

MERKATU EKOLOGIKOAREN ANALISIA

4. Ekoizpen ekologikoaren joera globalak

“Organikoa”-ren ideia duela 100 bat urte jaio zen, orduan ikusi baitzen lehen aldiz bizitzeko, jateko eta uzatzeko moduak bazuela zerikusia geure osasunarekin eta geure planetaren osasunarekin.

Pixka bat geroago, mugimendu organikoa arautzen joan zen arauak eta baldintza minimoak definituz, gobernuen eta erakunde pribatuen babespean, benetan ziren ekoizpenak eta prozesuak identifikatzeko. Horrekin batera, praktika horiek zituzten ondorio positiboaren ebidentziak ezagutu ziren. Esaterako, kontsumitzaileen osasunean, animalien osasunean, biodibertsitatean eta ekoizleen bizi kalitatearen hobekuntzan zituzten ondorio positiboak agerian geratu ziren.

Ehun urte igaro eta gero, Europan dago ekoizpen ekologiko ziurtaturako munduan dagoen nekazaritza luraren %21, 14,6 milioi hektarearekin; halere, desberdintasun handiak daude eskualdeen artean eta, batez ere, laboreen artean. Hektarea kopuru horretatik, 2 milioi Espainian daude. **Euskadik ia 5.500 hektarea dauzka ekoizpen ekologikorako, hau da, NAEren %2,75** (2019ko azaroko datuak, ENEEKek jasoak).

Nekazaritza ekologikoa, gaur egun, sistemaren gainean duen ikuspegi holistikoagatik ezagutzen da. Sistema honetan testuinguru lokala eta eskualdekoa elkartzen dira, eta sistema bakar globalik ez dagoen ideia defendatzen du. Sistema honek uste du herrialde bakoitzak, herri bakoitzak eta lurralde bakoitzak sistema globalak egokitu behar dituela, komeni zaion eran, bere lurra, klima, kultura eta beste ezaugarri batzuen arabera. Ikuspegi honek nekazari eta baserritar txikiak bilduko lituzte mugimendu organikoaren barruan. Bestalde, pentsamolde holistikoa ekologiarekin, ekonomiarekin, gizartearekin eta kulturarekin batera moldatzen da. Horrekin errazagoa da beste ekimen batzuekiko loturak sortzea. Era berean, ekoizpen organikoa bultzatuko duten garapen teknologikoaren alde egiten du, ekoizpen organikoa atzean ez geratzeko beste ekoizpen sistema batzuek dituzten aurrerapenekiko.

Horrela, etengabeko hobekuntza oinarrituta dagoen berrikuntzako kultura berri bat sortu nahi du, praktika onen bitartez, bai eta iraunkortasunaz interes handiagoa piztu ere, balio kate osoa indartzeko, baserritarrengandik hasita azken kontsumitzailearengana, eta produktuen benetako balioa eta kostua erakusteko, kostu zein irabazi globalak kontuan izanda. Eta horrela, benetan iraunkorra den nekazaritzako sistema bat etea printzipio organikoetan oinarritutako merkatu bat oro har onartuta izan daitezela ahalbidetzeko. Ikuspegi hori, azaldu den moduan, IFOAMek jaso du, eta Organic 3.0 izena dauka.

5. Ekoizpen Ekologikoaren egoera Espainian


5.1. Espainia munduan

Espainiako ekoizpen ekologikoaren sektoreak presentzia sendoa dauka, eta lehiarako oso leku onean dago produktu ekologikoen munduko merkatuan. Beraz, merkatu horrek etengabe gora egingo duela espero denez, Espainiak aukera handia dauka sektore honetan hedatzeko eta garatzeko.

World: Organic agricultural land 2017: Top ten countries

The ten countries with the largest areas of organic agricultural land 2017

Source: FiBL survey 2019



FiBL

www.fibl.org

1 Grafikoa: Munduko lehen 10 herrialdeetan ekoizpen ekologikorako erabiltzen den nekazaritza lur azalaren xehetasuna (milioi hektareatan). Iturria: FiBL-Switzerland (Research Institute of Organic Agriculture, Organic Agriculture Worldwide: Key results from the FiBL survey on organic agriculture worldwide 2019)


Australia asko nabarmentzen da nekazaritza ekologikorako lur azalerarik handiena duen herrialde gisa, eta bere atzetik daude Argentina eta Txina. **Espainia, berriz, munduko laugarren lekuan dago eta lehena European.** Halere, termino erlatiboetan, NAEren dedikazio ratioei buruz, egoera aldatu egiten da, aurrera ikusiko dugun moduan.

Eskala global horretan, Europako herrialdeen presentzia handia nabaritzen da, tamaina askoz handiagoa duten herrialdeen nekazaritza ekologikorako lur azalera berdinarekin eta handiagoarekin ere bai. Kontuan hartu behar da Europan **Nekazaritza Ekologikorako Lur azalera %28 gora egin duela azken lau urteetan (2 Grafikoa).**

World: Growth of organic farmland by continent 2017

Growth of the organic agricultural land by continent 2009-2017

Source: FiBL-IFOAM survey 2010-2019



2 Grafikoa. Ekoizpen igoeraren hazkundera munduan, azken 10 urteetan. Iturria: FiBL-Switzerland (Research Institute of Organic Agriculture, Organic Agriculture Worldwide: Key results from the FiBL survey on organic agriculture worldwide 2019)


5.1. Espainia Europan

Nahiz eta Espainia laugarren lekuan egon nekazaritza ekologikorako lur azalera gehien duten munduko herrialdeen artean eta lehenengo lekuan Europan, NAetik (Nekazaritza Azalera Erabilgarria) nekazaritza ekologikorako erabiltzen den azalera portzentajea %10 baino txikiagoa da; portzentaje horretatik gora, Europako hainbat herrialde (ikus 3 grafikoa, FiBLek emandako 2017ra arteko datuekin) badira jada erreferente mundu mailan, portzentaje altu horientatik, kasu batzuetan, Austrian esaterako, landutako lur azalera ia %25 izanik.

World: The highest shares of organic agricultural land 2017

Countries with an organic share of at least 10 percent of the agricultural land 2017

Source: FiBL survey 2019




3 Grafikoa: Landu daitekeen lurretik ekoizpen ekologikorako erabiltzen den lur portzentajea munduan. Iturria: FiBL-Switzerland (Research Institute of Organic Agriculture, Organic Agriculture Worldwide: Key results from the FiBL survey on organic agriculture worldwide 2019)

Elikadura Ekologikoaren Merkatuari erreparatuta, deigarria da Alemaniak eta Frantziak eremu horretan duten pisua, Nekazaritza Ekologikorako Lur Azalerari dagokionez biak Espainiaren azpitik egonda. Horrenbestez, esan genezkae Espainiak elikgai ekologikoen ekoizpena bultzatzen duela baina, halere, merkatu hori ez dago behar bezala garatuta (4 Grafikoa).

World: The largest markets for organic food 2017

The ten countries with the largest markets for organic food 2017

Source: FiBL-AMI survey 2019




4 Grafikoa: Ekoizpen ekologikoaren munduko merkatu handiena duten 10 herrialdeen gaineko 2017ko datuak. Iturria: FiBL-Switzerland (Research Institute of Organic Agriculture, Organic Agriculture Worldwide: Key results from the FiBL survey on organic agriculture worldwide 2019)


5.1. Merkatu ekologikoa Espainian

Nekazaritza ekoloikoaren industri jarduerari dagokionez, ekoizpen begetalarekin lotura duten jardueren ekoizpena animalia ekoizpenarekin lotutakoena baino sobera handiagoa da, eta 2018an %85 baino handiagoa da (ikus 5 Grafikoa). Presentzia handiagoko honetatik, nabarmentzekoak da fruta eta barazkien kontserbazioa eta manipulazioa, jardueran %35 baino gehiago hartuta. Animalia ekoizpenari lotuta, haragiaren eta haragikien kontserbazioa nabarmentzen da (ikus 6 eta 7 grafikoak). Aipatu behar da animalia ekoizpenarekin zein ekoizpen begetalarekin lotura duten Nekazaritza Ekologikoko industri jarduerak pixkanaka hazi direla azken lau urteetan; eta datu horiek, gainera, nekazaritza ekologikoaren kontsumitzaileek denbora horretan egin duten per capita gastuak berretsita daude.

5



5 Grafikoa: Nekazaritza ekologikoari lotutako industri jarduera Espainiako Autonomia Erkidego bakoitzean (ezkerra) eta Espainiako eremuko landare eta animali ekoizpenari lotutakoarekin bereizita (eskuina). Iturria: Iturria: Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Estatistikak, 2018ko datuen txostena. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministerioa.



6 eta 7 Grafikoa: Animal ekoizpenari lotutako nekazaritza ekologikoaren industri jarduera Espainian. Iturria: Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Estatistikak, 2018ko datuen txostena. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako Ministerioa.

6. Ekoizpen Ekologikoaren egoera Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE)

6.1. EAEn egoera Espainian

Euskadiko Nekazaritza Ekologikoaren egoera Espainiako gainerako autonomia erkidegoetakoarekin alderatuta, jarduera horretako dedikazioa txikia dela nabaritu dezakegu. EAEn Ekoizpen Ekologikorako erabiltzen den lur azalera Espainian erabiltzen denaren %0,2 baino ez da, eta abeltzaintzako ustategiak %1,5. (8 eta 9 grafikoak). Euskadik Nekazaritza Ekologikorako lur azalera oso txikia dauka. Halere, EAEk posizio pixka bat hobea du autonomia erkidego bakoitzeko produktu ekologikoen elaboratzaileen eta merkaturatzaileen kopuruari dagokionez (1 Taula).

Espainian, Autonomia Erkidego ekoizle handiak, hala nola Andaluzia, zeinak gainerako autonomia erkidegoek baino etxalde ekologiko asko eta Nekazaritza Ekologikorako lur azalera asko baititu, elaboratzaile eta merkaturatzaile kopuru handiagatik ere nabarmentzen dira. Euskal Herria elaboratzaileen oso tasa handia dauka, ekoizpen tasarekin alderatuta, batez ere ekoizpen motagatik, ezinbestean merkaturatu aurretik elaboratzen den ekoizpena delako (mahastizaintza eta bazka).


Ministerioak eta eremu pribatuko erakunde espezializatuek zabalduko azken txostenen arabera, produktu ekologikoen ekoizpenaren eta merkaturatzearen hazkunde potentziala oso altua da Euskadin. Euskal Herriak produktu ekologikoen ekoizpen eta lanketa txikia badu ere, mota horretako elikagaien kontsumoa oso nabarmena da, eta ingurumeneko balio erantsia duten elikagaien kontsumoa gehien handitu deneko Autonomia Erkidegoetako bat da.

Nº DE OPERADORES POR ACTIVIDAD DE AGRICULTURA ECOLÓGICA. Año 2018													
COMUNIDAD AUTÓNOMA	PRODUCTORES AGRARIOS				D	E	F	G	COMERCIALIZADORES				TOTAL
	A	B	C	TOTAL					H1	H2	H3	Total	
ANDALUCÍA	11.912	1.118	1.425	14.455	3	795	71	42	303	4		307	15.673
ARAGÓN	749	3	41	793		115	1		20			20	929
ASTURIAS	190		235	425	1	100	1		12	154	8	174	701
BALEARES	451	1	264	716		77	1		14	56	15	85	879
CANARIAS	1.273	10	65	1.348		104			10	59	1	70	1.522
CANTABRIA	93	127	13	233	1	74	6		6	1	2	9	323
CASTILLA-LA MANCHA	7.154	32	179	7.365	2	428	6	1	71			71	7.873
CASTILLA Y LEÓN	776	39	55	870		162	2		18		4	22	1.056
CATALUÑA	2.316	11	661	2.988		1.214	110	31	447	31		478	4.821
EXTREMADURA	2.546	74	127	2.747		138			68			68	2.953
GALICIA	365	313	66	744	53	161	17	3	48			48	1.026
MADRID	254	20		274		116	26		14			14	430
MURCIA	3.006		7	3.013		275	3		80			80	3.371
NAVARRA	449	5	66	520	1	123	1				22	22	667
LA RIOJA	269	6	1	276	1	72			5	6		11	360
PAÍS VASCO	354	36	60	450		206	4		16	36		52	712
C. VALENCIANA	2.255	14	19	2.288	3	467	71	32	292	14		306	3.167
TOTAL NACIONAL	34.412	1.809	3.284	39.505	65	4.627	320	109	1.424	361	52	1.837	46.463

NOTA: El número de operadores se ha contabilizado una vez por cada una de las actividades económicas.

A: Productores Agrícolas B: Productores Ganaderos C: Productores Agrícolas y Ganaderos D: Entidades de Producción Acuícola
E: Elaboradores/Transformadores F: Importadores G: Exportadores H1: Mayoristas H2: Minoristas H3: Otros Operadores

1 Taula: Iturria: Nekazaritza Ekologikoa Espainian. 2018ko datu estatistikoak – NIPO: 003-19-185-4. Nekazaritza, Arrantza eta Elilkadura Ministerioa.



8 eta 9 grafikoak. Autonomia Erkidego bakoitzean nekazaritza ekoizpenerako (azalera) eta animalia ekoizpenerako erabilitakoa, Espainian erabiltzen den guztiarekiko. Iturria: Nekazaritza Ekologikoa Espainian. 2018ko datu estatistikoak – NIPO: 003-19-185-4. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

1

6.1. Ekoizpen eta merkatu ekologikoaren bilakaera Euskadin

Euskadiko operadore ekologikoen kopuruak %8 egin du gora 2015ekoaren aldean, eta Bizkaia da azken bi urtez jarraian operadoreen hazkuntza kopururik handiena erregistratu duen lurraldea. Hori gorabehera, Gipuzkoa da ekoizpen ekologikoaren ordezkari gehien dituen, Euskadin guztira erroldatutakoen %40,1 Gipuzkoakoak baitira.

Laborantza ekologikoaren azaleran ere gertatu da hazkundera. 2015ean erregistratutako hektarea kopuruaren aldean, laborantza ekologikoaren azalera %7,74 hazi da. Arabak

laborantza ekologikoko azalera guztiaren erdia baino gehiago dauka, eta sobera gaintitzen du Gipuzkoako eta Bizkaiko hektarea kopurua, azalera guztiaren %20,7 eta %24,4 baitute, hurrenez hurren.

EUSKADI	Superficie (ha)	% Dedicación
Tierras arables	1085	24
Cereal	258	24
Leguminosas de grano	97	9
Patata	32	3
Pasto anual	386	36
Hortaliza fresca	221	20
Pasto permanente	2310	52
Cultivos permanentes	1070	24
Viñedo	743	69
TOTAL	4465	

2 Taula: Ekoizpen ekologikoaren orientazio desberdinerako erabilera txikia duen azalera Euskadin. Norberak landuta, ENEEKek eta MAPAk jasotako 2018ko datu kontsolidatuak abiapuntu hartuta.

Ekoizpen ekologikorako erabiltzen den nekazaritza azalera **4.465 ha**-koa da Euskadin (2018ko datuak), eta hori **EAEko NAEren %2,2** da. 2019ko azarora arte erregistratutako dautekin, kopuru hori handiagotzat jotzen da, NAEen %2,75, zehazki, 5.447 ha-rekin. Euskal Herriko ekoizpen ekologikoa (azalerrari dagokionez) batez ere bazketara bideratzen da, bai iraunkorrak bai urtekoak (larreak, bazkak eta proteaginosoak), eta egiaztatutako guztirako azalerraren %60 dira horiek (MAPAren eta EHNEEken 2018ko datuak). Azpimarratzekoa da Mahatsa dela laborantza ekologikorako azalerraren %16, eta horren atzetik, urrutik, zerealak daude. Barazki freskoek oso leku nabarmena dute Euskadin. Ekoizpen ekologikorako dauden lur goldagarrien %20 barazkien ekoizpena bideratuta daude (2 Taula).

Abeltzaintzari dagokionez, etxalde horien kopuruak ere %10 egin du gora 2015etik. Nabarmenezkoa da haragitarako behien presentzia, atzetik haragitarako ardien eta arrautzarako hegaztien hazkuntza daudela. Abeltzaintzako ustiategi egiaztatuak Bizkaian eta Gipuzkoan daude batez ere, eta antzeko banaketa dute, eta Araban abeltzaintzako ekoizpen ekologikorako erabiltzen diren lurren %17 baino ez dira geratzen (ENEKEN datuak, 2018).

Ekoizpen ekologikoko nekazaritzako elikagaien eraldaketan diharduten enpresei dagokienez, Bizkaiak dauka nekazaritzako elikagaien industria horien presentziarik txikiena, horien ia erdiak Gipuzkoan baitaude, eta %33 Araban.

Landare jatorria duten ekoizpenekin egiten den industri jardueran, nabarmentzekoa da ogiaren elaborazioa edota ardoen botilaratzea, eta horien atzetik edari alkoholduen elaborazioa, hala nola sagardoarena, eta gaileten, gozoen eta pastelen elaborazioa. Animalia jatorria duten jardueretan diharduten enpresei dagokienez, azpimarratzekoak dira esnearen eraldaketan diharduten enpresak, hiltegiak eta animaliak zatikatzeko gelak (horiek 2016an hirukoiztu ziren), eta arrain kontserben enpresak.

Garrantzitsua da azpimarratzea nola 2004an Euskadiko Ekoizpen Ekologikorako ekimena abiarazi zenetik (FOPE) ENEEken inskribatutako enpresa eraldatzaile eta merkaturatzaileek aitortutako fakturen bolumena %125 egin duen gora, 2016an fakturazio bolumena 17.368.170€-koa izanik eta gaur egun 43 Milioi €-koak, horietatik 23 M sektore merkaturatzailetik etorriak.

Gainera, ENEEken inskribatzeko eskaera egiten duten enpresen %28 sortu berriak dira, eta beren titularrei dagokienez, %45ek 45 urte baino gutxiago dute eta %26 emakumeak dira.

7. Kontsumitzaileak:

7.1. Kontsumo joerak

Aurretik esan den moduan, ekoizpen ekologikoa eta landare jatorriko produktuen merkatua animalia jatorriko produktuei zuzendutakoak baino sobera handiagoak dira. Espainiko kontsumitzaileen erosketa joeraren konfigurazioan ere ikusten da landare jatorriko produktu ekologikoen aldeko joera hau. Elikagai ekologikoen erosketa saskiaren osaerari begiratuta, %31 barazkiak eta frutak dira, eta ohiko elikagaien saskian, berriz, %20 dira barazkiak eta frutak (Espainiako ekoizpen ekologikoaren sektorearen ezaugarritzea balio eta merkatuko terminoetan lanean jasotako MAPAren datuak, 2015).

Egungo joerak adierazi du produktu ekologikoen kontsumoa nabarmenki goraka ari dela. Produktu ekologikoen merkatuko kuota %1,69koa da, elikadura ekologikoaren per capita gastuaren urteko igoera %12koa baino handiagoa izanik, hori baita 2014az gerotik erregistratzen ari den joera. Azpimarratzekoa da 2015ean erregistratutako salmenta igoera, aurreko urtekoarekin alderatuta %24,5ekoa baita. Osterantzean, ohiko produktuen kontsumoa geldirik egon da urte horietan berberetan. Halere, Espainian urteko gastua 36,33 €-koa da biztanleko eta gastu horrekin Europako beste herrialde batzuetatik, esaterako Danimarkatik edo Suediatik, urrun kokatzen da, herrialde horietan urteko gastua 200€ ingurukoa baita biztanleko (EcoLogical, 2018ko txostena, www.ecological.bio).

7.2. Kontsumitzaile ekologikoaren ezaugarriak.

2015ean Espainiako gobernuak garatutako azterlanaren arabera, Espainian produktu ekologikoak kontsumitzen dituztenek batez ere faktore hauei erreparatuta erabakitzen dituzte beren erosketak:

- ❖ Elikagaien osasuna eta segurtasuna (osasungarriagoak eta nutritiboagoak direla jotzen dituzte)
- ❖ Pestiziden, sintesiko ongarrien, hormonien, aditiboen eta beste produktu batzuen erabilera errefusatzeari.
- ❖ Kalitate, naturaltasun, freskotasun eta zapora handiko produktua.
- ❖ Ingurumena eta animalien ongizatea errespetatzen duen ekoizpena dela jotzea.
- ❖ Landa eremutik hurbilago dagoela, jatorri ezaguna duela, eta autentikoa, bertakoa eta tradizionala dela jotzea.

- ❖ Produktua kultura edo bizitza filosofia jakin batekin koherentea dela jotzea.

- ❖ Produktuaren buruzko informazioa.

Faktore horiek nabarmen bereizten dituzte ohiko kontsumitzaileak eta produktu ekologikoen kontsumitzaileak erabakiak hartzeko unean. Halere, kontsumitzaileek osasunaren kontzeptuaren inguruan eta elikagai ekologikoen kontzeptu horrekin duten harremanaren inguruan agertzen duten kezka bilakaera geldiezin dela-eta, gero eta antzekoagoak dira kontsumitzaile mota bi horiek dituzten lehentasunak. Kontsumitzaileen ohitura eta jarreretako aldaketak bizimodu osasungarriago batera bideratzen ari dira, eta horrek nabarmen eragiten du erosketan erabakietan. Horrenbestez, kontuan izanda produktu ekologikoen kontsumitzaileek produktu horiek erosteko erabakiak hartzeko arrazoi nagusietako bat dela beren osasunagatik kezkatuta daudela, joera honek nabarmen laguntzen du produktu ekologikoen kontsumoan.

Gaur egun, bizimodu osasungarriago baten aldeko joera hori dela-eta, produktu ekologikoen gainprezio bat ordaintzeko prest dauden kontsumitzaileen portzentajea goraka ari da. Horrek nabarmen handitzen du gure xede diren kolektiboa eta kontsumitzaile ekologikoen ezaugarriak zabaltzen ditu.

Europako merkatu internazional guztiek, salbuespenik gabe, igoera handia eduki dute salmentetan, termino absolutuetan. Kontsumo handiko konpainiek zein kanal espezializatutakoek jaso dute igoera hori. Dena dela, Europako analistek aurreikusten dute produktu ekologikoen kontsumoaren hazkunde portzentajea ohiko kanalean kanal espezializatuan baino handiagoa izango dela.

INGURUNEAREN ANALISIA ETA FOPE 2020-2023 PLANAREN HELBURUAK

7.3. Euskadiko ekoizpen ekologikoaren AMIA ANALISIA

Euskadiko Ekoizpen Ekologikoaren AMIA azterketa labur bat aurkezten da, kontuan izanik aurretik egindako diagnostikoa, ekimenak, aurretiko planak eta beren emaitzak, eta arreta berezia eginda FOPE 14-17 Planean lortutako emaitzei, eta ahuleziak zuzendu, indarguneak aprobetxatu, mehatxuei erantzun edo aukera ustiatzeko FOPE 20-23 Plan berri honetan proposatzen diren ekintzen kopurua adierazita.

BARRUKOA		INGURUA	
AHULEZIAK	Ekintza kopurua	INDARGUNEAK	Ekintza kopurua
1. Ekoizpen ekologikoaren eredu ulertzeko sektorean dauden modu desberdinak	13	1. Zentro teknologikoetatik transferitu beharreko gaitasun teknikoa eta ezagutza.	35
2. Jarduera ekologikorako erabili daitekeen lurren falta	0	2. Ekoizpen Ekologikoan kontsolidatutako ekimen produktiboak eta asoziatiboak.	14
3. Ekoizleei/ekintzaileei Ekoizpen Ekologikora bihurtzeko laguntza integrala –laguntza teknikoa zein ekonomikoa– emateko programen falta	5	3. Ekoizpen primarioaren kalitatea, osasuna eta trazabilitatea bermatzen duten organismo ofizial kontsolidatuak.	3
4. Ekoizpen ekologikoko premia berrietara gutxi egokitutako prestakuntza programak.	10	4. Euskal Herriko ohiko ekoizleen ingurumeneko kontzientzia handiagoa.	8
5. Zailtasun teknikoak ekoizpenaren hainbat alderditan eta produktu prozesatuaren gaineko ezagutza falta.	14	5. Nekazaritzako elikagaien eraldaketan diharduten eta produktu osasungarriez eta ekologikoez gero eta interes handiagoa duten industrien presentzia handia.	8
6. Ez daude agroekologian prestatuta dauden pertsonak.	1	6. Merkaturatzeko kanal laburren garrantzia ekoizpen primarioan	5
7. Merkaturatzeko eredurik eta egiturarik ez	3	7. Nekazaritzako Ekoizpen Ekologikoaren inguruan antolatutako kontsumo elkarteak eta taldeak	3

8. Animali jatorriko produktu ekologikoen ekoizpen txikia.	4		
9. Tokiko produktu ekologikoak ez daude oso eskura (prezio altua, kontsumo kanal gutxi)	13		
10. Ekoizpen Ekologikoaren gainkostua, ekoiztean, merkaturatzean eta kontrola egitean.	8		
11. I+Gko emaitzen eta teknologia berrien ezarpenik ez ekoizpen ekologikoan	12		
12. Tokiko ekoizpenak ingurumenari egiten dion onura ez da aintzat hartzen (gizartean baino ez da aintzat hartzen)	5		
13. Informazioz ez kalitatearen eta ekoizpen ekologikoaren etiketen baldintzaileen gainean.	16		
14. Baterako posizionamendurik edo posizionamendu horizontal eraginkorrik ez Ekoizpen Ekologikoari lotuta, organismo ofizialetan	9		

BARRUKOA		INGURUA	
MEHATXUAK	Ekintza kopurua	AUKERAK	Ekintza kopurua
1. Mugapen klimatikoak eta teknologikoak ekoizpenean. Produktuaren urtarokotasuna, soberakinak...)	10	1. Merkatu potentzial handia.	9
2. Ohiko nekazarien oposizioa, laboreen gaixotasunak kudeatzeko arrazoi teknikoengatik.	9	2. Esportazioko merkatu hurbila eta kalitateko produktua kontsumitzeko tradizioarekin, ingurumeneko iraunkortasuneko parametroetan oinarrituta	2
3. Egiatzatutako hazi ekologikoa edukitzeko mugapenak.	9	3. Euskal Gastronomia nabarmena, traktore komunikatzaile gisa.	4
4. Desinformazioa eta kontrako mezuak Ekoizpen Ekologikoaren gainean.	29	4. Bertako ohiko produktu aitortuaren erakunde logistiko eta komertzial internazionalak.	0
5. Labore estentsiboetako produktuen merkaturatzeko konplexua. (bolumen handien kudeaketa). Batera merkaturatzeko antolaketa ez.	9	5. Agroekologia ohiko ekoizpena transferitu daitezkeen nekazaritzako jardunbide egokien eredu gisa.	5
6. Errentagarritasun txikia ohiko ekoizpena ekoizpen ekologiko bihurtzeko aldian.	14	6. Produktibitate ekologikoaren alderdi positiboak erakusten dituzten argudio zientifikoak gero eta gehiago dira. Ekoizpen ekologikoa eskuladeetako eta Europako I+G+Bko lehentasunezko lerroen barruan.	32
7. Banaketa antolatuak kontzentratzera jotzen du.	4	7. Bertako kalitateko produktuaren eskaria gero eta handiagoa eta Ekoizpen Ekologikoko produktuekiko sentsibilitate handia	22
		8. Ekoizpen Ekologikoarekiko sentsibilitatea, elikadura alternatiboetan.	15
		9. Erakunde lokal, nazional eta euroarren konbikzioa. Ekoizpen ekologikoaren garapena errazten duten gobernuaren planak eta politikak.	24

		10. Informazioaren Gizartea eta sare sozialak.	7
--	--	---	---

7.4. Helburu nagusiak

FOPE 2020-23 planaren helburua da ekoizpen ekologikoa bultzatzea balio kate osoan – ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea eta kontsumoa– eragina duten ekintzen bitartez eta NEan hazkuntza potentzial handiagoa duten ekoizpen orientazioei (laborantza estentsiboak eta fruten laborantza) eta NEan irauteko berrorientatu behar direnei (baratzeko laborantzak) lehentasuna ematea.

Helburuak eta beren jarraipenerako adierazleak argi definituta daude:

1. Operadore eta eraldatzaileen kopurua %10 handitzea urtean
2. Nekazaritza ekologikoko laborantza estentsiboetarako, mahastizaintzarako eta frutazaintzarako erabiltzen den nekazaritza azalera erabilgarria %1 handitzea
3. EAEko ekoizpen ekologikoaren errentagarritasuna eta iraunkortasuna areagotzea, posizionamendua eta kontsumo joerak oinarri hartuta
4. Agroekologiaren gaineko Prestakuntza, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza lerroak indartzea eta sendotzea EAEn

EKINTZA PLANA

8. Jardute ardatzak eta lerroak

Definitutako estrategikoak, FOPE 2020-23 plan berria 4 ardatz estrategiko hauen inguruan egituratuko da:

Kontuan hartuta 2014tik 2018ra bitartean garatutako FOPE planean lortutako emaitzak, egindako AMIA matrizearen faktoreen gurutzaketa, eta beti definitutako printzipio eta helburu estrategikoak erreferentziatzen hartuta,



Ardatz horiek izaera transbertsala dute balio katearen kate maila guztietarako (ekoizpena, eraldaketa, banaketa eta kontsumoa) eta 14 jardute lerrotan zabalduko dira. Lerro bakoitzak, halaber, izaera transbertsala edukiko du, baina arduradun/bultzatzaile bat aurreikusten da lerro bakoitzerako, lerro bakoitzean aurreikusten diren ekintzak dinamizatze eta koordinatzeko.

8.1.1 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Informazioa, posizionamendua eta sustapena

	JARDUTE LERROA ETA EKINTZAK	Arduradun bultzatzailea
L1	<i>Ekoizpen Ekologikoaren eredia ohiko ekoizpenetara hurbiltzea</i>	ENEK
A1.1	EREDUA HURBILDU_Ekon espezializatuta ez dauden nekazariekin/teknikariek topaketak / Betetze daignostikoak ENEEken eskutik	ENEK
A1.2	DIAGNOSTIKOAK_ Interesatuta dauden ekoizleek araudia zenbateraino betetzen duten diagnostikatzea ENEEken eskutik	ENEK
A1.3	JARDUNALDIA NEIKER_ NEIKERen faro finkan ate irekiak egiteko eta ikerketaren emaitzak zabaltzeko jardunaldi 1 egitea urtean	NEIKER
L2	<i>Kudeaketa tekniko ekonomiko eta administratiboa laguntzea</i>	ENEK
A2.1	TRANSMISIOA_Esperientzia mahaia ezartzea laborantza estentsiboetan eta baratzeko laborantzan Nekaritzza Ekologikora igarotzen laguntzeko, eta horrekin batera LGPan neurri espezifiko bat diseinatzea (laguntzen duten titular esperientziadunak)	ENEK
L3	<i>Diskriminazio positiboko estrategiak bultzatzea</i>	EJ
A3.1	DIRULAGUNTZAK_Nekazaritza Ekologikoa sustatzeko LGP berrian azpiprograma tematiko bat sortzeko aukera aztertzea (Reg UE 1305/2013, 7. artikulua)	EJ/HAZI
A3.2	FISKALITATEA_ Laborantza estentsiboetatik datozen produktu ekologikoen fiskalitate positiboari lotuta dagoen egoera eta horretarako lege aldetik jarduteko dauden aukerak aztertzea	EJ
L4	<i>Kontsumitzaileek bertako kalitateko produktua eskuratzeko behar duten erraztasun eta aukera handiagoari erantzutea</i>	ENEK
		HAZI
A4.1	MEZU BERRIAK_eko, lokala eta kalitatea batuko dituen aurkezpen formatu berriak aztertzea.	AZTI
A4.2	KATALOGO DIGITALA_Egiaztatutako produktuen katalogo digitala argitaratzea eta berritzea	ENEK

8.2.2 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Kontsumoa eta merkaturatzea

JARDUTE LERROA ETA EKINTZAK		Arduradun bultzatzailea
L5	<i>Ekoizpen Ekologikoaren Behatoki bat ezartzea</i>	ENEK
A5.1	BEHATOKIA_ HAZIren BEHATOKIAN Nekazaritzako Elikagaien Ekoizpen Ekologikoari buruzko datuak jasotzea ezartzea (ekoizpena, merkaturatzea, kontsumoa)	HAZI AZTI
A5.2	BEHATOKIA_ Elikadura ekologikoan zentratutako merkatu azterketak sustatzea, diseinatzea eta hastea. Joera berrien zaintzarako sistema bat ezartzea	HAZI AZTI
L6	<i>Merkaturatzea erraztea: Merkaturatzeko tresnak aztertzea, sukaldaritza kolektibora bideratutako plangintza komertziala bultzatzea</i>	ENEK
A6.1	SALMENTAK KUDEATU_Salmenten kudeaketa komertziala hobetzea, salmentarako euskarriak eskura jartzea	ENEK
A6.2	SALMENTA TOKIAK_Eko produktua bistaratzea eta produktu hori erostea erraztea	ENEK
A6.3	HORECA_Sentsibilizazio ekintzak egitea HORECA kanalean	ENEK
A6.4	TRANSFORMAZIOA HOBETU_Produtu eraldatu berritzaileen proiektuak garatzea	AZTI
A6.5	HORNITZE UNITATEA_SAREKO esperientzia sendotzea eta hedatzea	ENEK AZTI
L7	<i>Ekoizpen Ekologikoaren irudia hobetzea azoka eta tokiko merkatuetan</i>	ENEK HAZI
A7.1	EKOAZOKA TXIKIAK_Nekazaritza Ekologikoaren gaineko prestakuntza eman tokiko azokak kudeatzen dituzten teknikariei. Komunikaziorako baliabide eta euskarri berriak lantzea. Sare digitaletan hedatzeko modua eta lankide berriak lantzea	ENEK HAZI
A7.2	EKOEUSKADI AZOKA PROFESIONALETAN_Nekazaritzako Elikagaien Ekoizpen Ekologikoan espezializatutako azoketan	ENEK

JARDUTE LERROA ETA EKINTZAKArduradun
bultzatzailea

presente egotea Euskadiko EKO gunean

L8	<i>Kontsumitzaileari informazioa ematea kontsumoa kontsolidatzeko</i>	ENEK HAZI
A8.1	EKOLURRA_EKOLURRA aldizkaria argitaratzea, inprimatzea eta banatzea	ENEK
A8.2	WEB ENEK_Kontsumitzaileekin komunikatzea sare sozialen bitartez, urteko 365 egunetan. www.eneek.eus webgunea eguneratzea	ENEK
A8.3	DIBULGAZIORAKO MATERIALAK_Informaziorako euskarri berrien egokitasuna planteatzea (Nekazaritzako Elikagaien Ekoizpen Ekologikoaren identifikazioa eta ezaugarriak)	ENEK
A8.4	AURKEZPENAK_Kontsumitzaileekin topaketak egitea informaziorako (hitzaldiak eta solasak) Kontsumitzaileen Elkarteen, Kontsumobideren eta beste batzuen bitartez	ENEK
A8.5	KANPAINAK_Alma Fresca / Izaera Bizia kanpaina berriz abiaraztea	ENEK
A8.6	EKINTZAK LAGUNDU_Elikagai ekologikoen presentzia bermatzea ekimen kulturaletan, ludikoetan, gastronomikoetan eta bestelakoetan.	ENEK
A8.7	ATE IREKIAK_Ate irekietako ekintzak Ekoizpen Ekologikoa erakusteko, Lurzorua programa ENEEken egoitzan, ibilbideak, bisitak, etab.	ENEK

8.3.3 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Zientzia eta berrikuntza Nekazaritza Ekologikoan

	JARDUTE LERROA ETA EKINTZAK	Arduradun bultzatzailea
L9	<i>Mahai Teknikoa abian jartzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen prozesuak eta produktuen eraldaketarako prozesuak hobetzeko ikerketa lerroei lehentasuna emateko</i>	NEIKER AZTI
A9.1	MAHAI TEKNIKOIA_ I+G+B planak definitzeko mahai teknikoia eratzea	NEIKER AZTI
A9.2	I+d+i PLANA_ Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen eta eraldaketa ekologikoko I+G+Brako urteko plan bat idaztea	NEIKER AZTI
A9.3	KOOPERAZIOA_ I+G+B proiektuen urteko lehenespena Ekoizpen Ekologikoari buruzko lankidetzaren proiektuen konfinantzaketa eskatzeko	ENEK NEIKER AZTI
A9.4	I+d+i TXOSTENAK_ Nekazaritza Ekologikoko I+G+Brako Europar dauden estrategiei buruzko txostena idaztea: irekitako lerroak, beharrezko lerroak eta erreferentzia zentroak	NEIKER AZTI
A9.5	ELIKAGAI EKOEN EZAUGARRIAK_ Produktu ekologikoen ezaugarritzea eta adituen panelak eta eko-ez eko arteko konparazio analitikoak egitea AZTI	AZTI
L10	<i>Ekoizleentzako aholkularitza, teknikariak nekazariekin eta abeltzainekin batera ikasita</i>	NEIKER
A10.1	LANDAKETA ESTENTSIBOAK_ Nekazaritza Ekologikoa sustatzea laborantza estentsiboetan eta nekazariari lagun egitea tokiko erakundeekin bitartez edo haien babesarekin	NEIKER
A10.2	ORTUGINTZAREN BIDERAGARRITASUNA_ Baratzeko laborantzetan Nekazaritza Ekologikoa egiten duten etxaldeekin bideragarritasun ekonomikoaren analisia	ENEK
A10.3	FINCA FARO NEIKER_ Nekazaritza Ekologikoko FARO FINKA sendotzea nekazaritzako eta abeltzaintzako saiakuntza esperimentalak egiteko NEIKERen	NEIKER

L11	<i>Ekoizpen Ekologikoaren iraunkortasunaren analisia</i>	ENEK
A11.1	EKOEFIZIENTZIAN HOBETU_ Aurrezpen planetan eta ekoizpen ekoefizienteko planetan sakontzea	ENEK
A11.2	EREDUA HOBETU_ Informazio eta formazio ekintzak egitea, Ekoizpen Ekologikoko "ekoizpen" ereduaren hobekuntza sustatzeko, ikuspegi agroekologikoari erantzunda	ENEK
L12	<i>Prestakuntza modulu batzuen diseinua</i>	HAZI
A12.1	FORMAKUNTZA EKOAN_ EAEn Nekazaritza Ekologikoaren gaineko prestakuntzarako estrategia plan bat diseinatzea urtean	HAZI
A12.2	IKERKUNTZA ENTITATEAK_ I+G+Bri buruzko zientzia elkarrekin koordinaziorako, akordiorako edo hitzarmenerako estrategien ebaluazioa	NEIKER
A12.3	EKO MAHAI TEKNIKOAK_ Ekoizpen Ekologikoa bultzatzeko Espainian eta European egiten diren mahai teknikoetan parte hartzea	NEIKER ENEK HAZI

8.4.4 ARDATZ ESTRATEGIKOA: Komunikazio eta koordinazio instituzionala

JARDUTE LERROA ETA EKINTZAK		Arduradun bultzatzailea
L13	<i>FOPEn koordinazioa eta jarraipena. Aurrerapenen eta ekintza zuzentzaileen balorazioa</i>	MAHAI T.
A13.1	FOPE BATZORDEA_ FOPEn kudeaketa, gobernantza, koordinazio eta babes instituzionalerako batzordea eratzea: EJ (Elikagaien kalitateko eta industrietako zuzendaria), Foru Aldundiak, NEIKER, AZTI, ENEK eta HAZI	MAHAI T.
A13.2	TRASFERENTZI BATZORDEA_ Eraitzen transferentziarako batzordea eratzea plana egokitzeko. Batzordea hauek osatuko dute: Toki erakundeak (Foru Aldundiak), Nekazaritza Ekologikoko elkarteak (ENEK), IHOBE, Kudeaketa Zentroak (lursail) eta LGE (mendinet)	ENEK
A13.3	PEGA BATZORDEA_ PEGA batzordeetan parte hartzea PEGA-FOPE ekintzen koordinaziorako	HAZI

L14	FOPE1821 Planaren komunikazioa	ENEEK
A14.1	WEB FOPE_ FOPE1720 planaren emaitzen transmisioa inplikaturako erakudeen web atarietan "FOPE" gune bat ezarri eta www.FOPE.org webgunearen bitartez	ENEEK NEIKER

JARRAIPENA ETA AURREKONTU ESPARRUA

FOPEn jarraipena Eusko Jaurlaritzak, Neikerrek, Aztik, Eneek eta Hazik horretarako berariaz osatutako mahai tekniko batek egingo du. Idazkaritza NEIKERen esku egongo da, Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria den heinean.

Dedikazioa eta aurrekontu esparrua parte hartzaile bakoitzerako eta egin beharreko ekintza bakoitzerako zehaztuta daude. Ekintzak urtekoak dira, eta aldian-aldian mahai teknikoko kideek berrikusiko dituzte, urteroko egokitzapenea egiteko. Ikus atxikitako taula.